

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Casto Arregi Aranburu

*Alkiza,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Alkizako plazako
Madrigalberri etxean jaioa.
Aita nafarra zuen, Uharte-
Arakilgoa, eta ama, berriz,
alkizarra. Aitak txikitan ez
omen zekien euskaraz
besterik, baina oso ume zela
Nafarroako Pitillas herrira
eraman zuten, eta han
erdaraz bizi beharraren
beharrez, euskara ahaztu
omen zitzaion. Herrian
ezagunak ziren bere aitaren
euskara xelebrearen inguruko
kontuak. Castok, beraz,
erdara erraz samar ikasi
zuen. Gainera, kale etxean
bizi zirenez, lau urte
betetzerako eskolara bidali
zuten Casto. Eta baserritarrak
eskolatik atera eta lanera
joaten ziren bitartean, Casto
eta gainontzeko Alkizako
kalekumeak pilotan ibili ohi
ziren. Hala, bi anaia pilotari
profesionalak izandakoak
ditu. Gaztetan Zubillaga
tailerrean ibili zen lanean
zazpi urtez. Baina aita
perratzailea zuen, eta anaia
ere "Albaitari perratzaile"
lanetan jarri zuten
soldaduskan, hark ere ondo
ikasia zuen ofizioa. Beraz,
perratzaile lanetan hasi ziren
bi anaiak, eta Anoetan egin
zuten etxea. Negozioa
Alkizatik Anoetara pasa eta
bertan hartu zuen erretiroa.

Zintak

ALK-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-02-18
- **Iraupena:** 79 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com